



Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

ITZULERAKO BIDEA ARGIZTATUZ

Oraindik bero dago sutondoko ikatza. Gabonak pasa dira, gogoan iltzatuta gelditu zaizkigu, baina, oraindik hutsik dauden aulkiak, eta, haiei so, begirada galduarekin, ama, aita, bikote eta alabak. Mila loldi irriñoa ezpainetan ageri da irudian, eskumuturreko telematika entregatu eta hamalau urtez ukatua izan duen askatasuna berreskuratuta. Dirdira berezia du argazkian, iraganaren preso beharrea etorkizunaren jabe direla jakitun diren horiek soilik izan ohi duten dirdira. Bilbo distira koloretsu antzekoarekin tindatuko da gaur. Denboraren joan azkarrak dispersioaren mende laurdena eraman du, asfaltozko milioika kilometro oparitan ekarri, ehunka familien diru poltsak xahutu eta baita hainbat bizitza ostu ere. Geroaren etorri geldoak, baina, itzulerako bidea egingo du. Gaur argiztatuko den ibilbidea, hain zuzen ere. oihana.llorente@gaur8.info